

HISTORIAK UTZ AHAL DITZAKE HISTORIALARIAK LUR JOTA?

Mikel Zubimendi Berastegi

Ez da fenomeno ezaguna historiak traumatizatu dituen historialarien kasua. Baina, izan, hor da. Horrorea lehen pertsonan bizi ez zuten arren, holokaustoaren, genozidioaren edo torturaren historiak ikertu eta berreraikitzean gaixotu egin dira, eta lehen izan zirenak izateari utzi.

Iris Chang historialariaren historia abiapuntu egokia da gaia lantzeko. “The Rape of Nanking: The Forgotten Holocaust of World War II” liburu eder eta latzaren egileak txinatarren kontra Japoniar Armada Inperialak egindako basakeriak ahanzturatik erreskatatu zituen, familietan gorde eta belaunaldiz belaunaldi kontatzen ziren masakrearen pasadizoak bildu, lurperatutako oroitzak azaleratu, bizirik iraun zutenak elkarrizketatu zituen.

Changen ahaleginak soldadu japoniarren krimenek kolpatutako pertsonak baino haragoko oihartzuna izan zuen. Liburu arrakastatsua izan zen, oso saldua, inoiz deskribatu edo idatzi gabeko krudelkeria bat zehaztasun handiz, erresoluzio osoan, erakusten zuen. Har dezagun biolentzia sexualaren pasarte hau adibidetarako, adierazkorra oso baina ez lazgarriena: «Agian japoniarren entretenimendu basatienetakoa baginak zutoinetan sartzea zen. Nanjingeko kaleetan emakumeen hilotzak ikus zitezkeen hankak zabalduta, baginak egurrezko hagaxkekin, adar eta belarrekin zulatuta... soldadu japoniar batek garagardo botila sartu eta tiro bat bota zion gero, beste emakume bati golfeko makila sartu zioten... neskatoak hain basatiki bortxatu zituzten, ze asko ezin ziren oinez ibili hurrengo asteetan, batzuk kirurgia behar izan zuten, beste batzuk hil ziren eta, batzuetan, neskato nerabeen baginak xerratan zabaldu zituzten hobeto bortxatu ahal izateko».

Liburua idazteko gorputz eta arima jardun zen, obsesioraino. Torturarako gailuak bildu zituen, garaiko pelikulak, errelatoak eta kable diplomatikoak, lekuko dardartien oroitzak bideoan grabatu zituen. Behin eta berriz errepasatu zituen denak, idatzi, editatu, eta liburua argitaratu ostean ehunka hitzaldi eman zituen munduan barna. Tragediatik banantzea ezinezkoa egin

zitzaion, ordea. Idaztearen estresak, horrorearekin egunero bizitzeak, pisua nabarmen galtzera eraman zuen, baina idatzi egin behar zuen bizitzan egingo zuen azken gauza balitz bezala. Itolarrian sentitzen bazen ere, minetan atrapatua.

Liburua idatzi eta zazpi urtetara, senarra eta semea lotan utzita, autoa hartu eta errepede bakarti eta galduak hartuta mendirantz abiatu zen. Autoa geratu, pistola atera eta bere buruaz beste egin zuen tiro batekin. 36 urte zituen.

«ZEHARKAKO TRAUMA» IZENEKO NAHASMENDUA

Landu dituzten historiek traumatizatutako historialarien fenomeno ia ez da ikertu, apenas ezagutzen da. Hala ere, gaiztakeria dokumentatu duen edonork ezagutzen ditu sintomak. Armeniarren genozidioaz, Intxaurrondoko torturaz edo juduen holokaustoaz idatzi duenak badaki ia ezinezkoa dela loa gozo hartzea, kolkoka bete min ez geratzea. Eta batzuetan traumaren osteko estresaren moduko sintomak ageri dira: pisuaren bat-bateko galera, insomnia, alkoholaren edo pilulen kontsumo neurrigabea, haserre eta min esplikaezinak...

Normalean, erreakzio hauek lehen pertsonan biolentziaren biktima izan direnei gertatzen zaizkiela suposatzen da,


edo lekuko zuzenak izan direnei. Eta literatura zabala dago, gertakizun traumatikoetatik bizirik atera direnen esperientziak autoritate egiten ditu. Ikertzen dituzten basakeriak bizi ez dituztenek, aldiz, imajinazioaren eta immersioaren bitartez eskuratzen dute esperientzia.

Lehen pertsonan bizi izan ez duzun zerbaitek traumatizatu al zaitzake? Psikoanalisiaren arabera, trauma bat shock hain ikaragarria da, ezen buruan ezin dela prozesatu. Babes eta defentsa psikikoak apurtzen ditu, eta ohiturak, ideologiak, sinesmenak, erritual, harreman eta are gorputza konprometitzen ditu. Burua, bere babes antolatuaz gabetzean, beste egoera batean guztiz normalak irudituko zitzaizkigun gauzak barneratzeko borrokatu behar da, ezin ulertuzkoari zentzu bat eman nahian alferrik saiatuz. Horren guztiaren ondorio dira jokaera suntsigarri eta alienatzaileak.

Traumaren aurrean lehen lerroan erantzuten, edo teorizatzaile gisa, tratatzen dituzten minen iturrietatik gertu daude psikoterapeutak eta osasun mentaleko beste profesional batzuk, arrisku-tsuki gertu. Pazienteekin interaktuatzen zuten terapeutak traumatizatuta gera zitezkeela adierazi zuen aurrena Chaim Shatan psikiatra izan zen, Vietnamgo ge-

Genozidioaren historia
ikertzen eta berreraikitzen
aritu diren historiagile asko,
bizipen horiek beren
kontzientziak onartzean,
jada ez dira lehengo
berberak izaten.

GAUR8



rrako beteranoekin gerraren neurosia ikertu zuen judu kanadarra. 1973an bertan idatzi zuenez, «ohartuta gaude, guk ere amesgaiztoak izan ditzakegu, lo egiteko ezgai izan gaitezke, besteekin normal hitz egiteko zailtasun handiak izan ditzakegu, beteranoen bizipenak gure kontzientzian onartzen ditugun unetik, errotik aldatu egiten gara». 1995ean, psikologo klinikoeek Shatanek identifikatu zuen nahasmenduari izena eman zioten: «zeharkako trauma».

IMAJINAZIOA DA GAKOA

Zeharkako trauma hauek, akidura edo neke emozionala ez bezala, barruraino erasaten dute eta ez dira hain erraz sendatzekoak, ariketarekin, opor batzuk hartu edo ondo lo egitearekin bakarrik ez dira sendatzen. Ikararen uneekin ez daude lotuta, baina egon izan balira bezala sentitzen dira. Nolabait esateagatik, pertsona batetik bestera horroreak transmititzen infekatu egiten dira.

Trauma hauetan imajinazioa gakoa da, enpatiaren motorra, ezagutza eta aitorpenetik harago dagoen esperientzia batean sartzeko gidari onena. Historialari batentzat imajinaziorik gabe iragana dokumentatzea ezinezkoa da. Beste bizitza batzuen giroa berregiteko gakoa da, etorkizun alternatiboak ikertzeko metodoa. Hannah Arendt-ek «barne iparrorratza» deitu zuen, «beldurgarria den egiaren argia ikusteko» bidea.

Zenbat eta sutsu eta zehatzago berre-raiki iragana, zenbat eta gehiago sakondu ikerketan, orduan eta larriago zauritu ditzake. Paradoxa kezkarria gertatzen da, bereziki gizarte bat goitik behera erortzean, eskala moralak hankaz gora geratzean, gertatua ulertzea are zailagoa denean. Genozidioak ikertu dituztenak, adibidez, saiatu dira azaltzen ea nola den posible gutxiengo boteretsu batek herri oso bat deuseztatzea, gaizkiaren –izan hutsala ala erradikala– izatea zer den esaten ez dakitela utzi ditu. Eta zenbat eta gehiago jakin, orduan eta esplikatze zailago. Ulertzeko porrot hauek ez dute soilik historialarien trauma areagotzen, historia diziplina bezala ulertzeko ideiaaren kontra ere badoa, ulergarria dela, edo



Goian, Bigarren Mundu Gerran japoniarrek Singapurren preso hartutakoak gosez akabatzeaz; behean, Francok garrotean hil zituenak gogoratzen dituen irudia; hurrengo orrialdean, Japoniar Armada Inperialeko soldadua preso bati burua moztzen eta nazien holokaustoaren biktimak.

GAUR8

Historialari batentzat imajinaziorik gabe iragana dokumentatzea ezinezkoa da. Beste bizitza batzuen giroa berregiteko, beste esperientzia batzuetan sartzeko gakoa da, etorkizun alternatiboak ikertzeko metodoa

Nazio guztiek daukate desatsegin zaizkien kontuetatik banantzeko sena. Erreflexu politiko eta kulturala da, ia automatikoa. Historia erabilgarri bat diseinatzean, kontzientzia kezkatzeko duen hori erreprimitu egiten da



gutxienez arrastoa segitu eta berreraiki daitekeelako ustearen kontra.


Historialariak, baina, bizirik atera zirenetatik gauza batean ezberdintzen dira: traumaren jatorrira joatea beraien aukera da. Holokaustotik bizirik ateratakoen ondorengoek edo Intxaurren don torturatuta bizi osorako tormentatu zituztenen seme-alabek, beren kondizio horretan ez dute ahotsik izan.

ALDENTZE OBJEKTIBOA ETA ULERMEN ENPATIKOA

Galdera, baina, hori da: basakeria horien aurrean, besteen mina ikertzean, nola sentitu, egiazki eta barruraino, gehiegi sentitu gabe? Historialari askori, bereziki akademian dabiltzanei, gertaeren aurrean neutralitatea mantentzea urratu behar ez den lehen printzipioa dela erakusten zaie. Emozionalki ez dela larregi inplikatu behar, distantzia hotz eta analitikoa eskatzen duela diziplinak. Baina hortik, erraz asko gainera, disasoziaziora irristatu zaitezke, distantzia gehiegi nahita hartzeraz, zeharkako trauma baten aurrean babesteko, larrimin sentimenduen aurrean defentsa moduko batera. Zentzua bilatzen saiatzen ari diren horren inguruko ulermen partzial batekin utz ditzake horrek. Finean, aldentze objektiboaren eta ulermen enpatikoaren arteko oreka, historiaren praktikarako ezinbestekoa dena, oso zaila izan daitekeelako lortzen.

Historialaria, besteen izenean iragana prozesatzen duen pertsona legez, trauma horren kontra borrokatzen bada, ez da harritzekoa gizarteak ere berdin egitea, gizarte bera sortu eta aurrerarazi zuen biolentziaren aurka borrokatzea. Azken buruan, nazio eta kultura politiko guztiek daukate desatsegin zaizkien kontuetatik banantzeko sena, tirantza naturala. Erreflexu politiko eta kulturala da, ia automatikoa, iraganeko horroreen ulermen eta kontsiderazio zuzena ekiditeko modu bat, eta haien aurrean beren ardurei iskin egitekoa. Beste hitz batzuetan esanda, historia erabilgarri bat diseinatzean, kontzientzia kezkatzen duen hori erreprimitu egiten da.

Basakeria okerrenak intimoenak izan ohi dira. Gurasoengandik lapurtuak diren haurrak, indarrez zikiratzen diren



emakumeak edo torturarekin txikitzen diren arimak; gure tabu zorrotzenak borrokatzen dituzte. Zenbat eta barruragokoa izan biolentzia, orduan eta errazagoa izan ohi da eztabaida publikoa ekiditea.

Eta orduan, zertarako jarraitzen dute historiagileek? Erresistentzia handiagoa dutelako? Ahotsik ez dutenei ahotsa emateko? Horroreen bilobentzat erreparazioa lortzen laguntzeak beren lanak zerbaitetarako balio duela ziurtatzen die-lako? Edo agian, narratiba bat eraikitzen saiatzea, ulertezina denari zentzu bat ematea, bere baitan sendagarri delako? Hondamendian ordena pixka bat jartzeko ahalmen horrek, ulergaitza denari forma bat emateak, motibazio eta kontsolamendurako balio duelako? Injustizia handien aurrean, amorru justu eta askatzaile baten erregaia direlako?

Historialarientzat kontsolagarria izan daiteke sendabidea badagoela jakitea. Azken finean, gizakiak dira. Erreparazioa lortzeko urte luzeak har ditzake. Agian inoiz bukatuko ez den ahalegina da. Baina lehen urratsa denetan nabarmenena da: traumari aurpegira begiratzea eta bere begiradari eustea.

